

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure zerbitzurako hainbat funtsezko baliabide beharko ditugu. Bertan gure zerbitzuari bakoitzak eskeini diezaiogeguna zehaztuko dugu, hau da, bakoitzak zerbitzua aurrera eramateko bere aldetik eskeiniko duena.

Hasteko baliabide fisikoei dagokionez, negozio bat hasterako garaian ezinbestekoa da sarrerako diru kantitate zehatz bat izatea, hasiera emateko eta baita zerbitzuarekin jarraitu ahal izateko. Horregatik, 10.000€ jarriko ditugu bakoitzak, guztira 50.000€ izanik. Baina horretaz aparte, mailegu bat ere eskatuko dugu eta Udaletxeen laguntza ere izango dugu.



Gainera, sarreran ordenagailu bat eta inprimagailu bat beharko ditugu. Ordenagailua bakoitzak berea ekarriko du, banakako lana egiterakoan beharrezkoa baita bakoitzak berea izatea. Inprimagailua Mirene-k ekarriko du. Mahaiak eta aulkiak ere beharko ditugu, eta hauek Miren-ek ekarriko ditu, izan ere, bere gurasoak aurretik izandako lantegi batetik mahai asko soberan dituzte eta guk berrerabiliko ditugu.

Baliabide fisikoak alde batera utziz, giza baliabideetan oinarrituko gara, eta bertan ekonomiari buruzko ezagutzak Nagorek eskeiniko ditu, oso garrantzitsua baita dugun dirua ondo antolatzea. Bere familiarik datorren ezagutza bat da, izan ere, bere aitak banku batean lan egiten du eta txikitatik oso ondo erakutsi diote kontuak ondo eramaten eta ordenatua izaten gai honetan. Ekonomiaz gain, lesioei buruz ezagutza handia du, bera lesionatuta egon baita. Horregatik, hainbat esperientzia eta ezagutza dituenez gai honi buruz, bezero lesionatuei lagun dezake.



Mirene-k jendearekin komunikatzeko ahalmen handia du, pertsonak ezagutzerako garaian oso irekia baita. Horregatik, erretasuna du jendearekin hitz egiteko eta komunikatzeko. Beraz, berak bere komunikatzeko gaitasun hori eskainiko du. Horrela, erraztasunez komunika daiteke beste enpresekin aliantzaren bat nahi badu.

Lina publizitate munduan interesatuta dago eta hori ikasi nahi du. Txikitatik marrazten duenez, bere ezagutza eta sormena eskaini ditzake. Honekin batera, sare sozialetan ere interesatuta dago eta zerbitzua ezagutzera emateko tresna baliagarria denez, bere abilezia hori erabil dezakegu.





Gure zerbitzua jendearen aurrean aurkezteko eta beste enpresa eta pertsonekin komunikatzeko ahalmena Naroak du. Oso irekia da eta abilezia handia du gure zerbitzua eskaintzen ari garen pertsonak konbentzitzeko. Horrez gain, inguruneari buruzko ezagutzak ere eskainiko dizkigu, oso kontzientziatuta baitago gaur egun gure gizartean gertatzen ari diren aldaketa klimatikoei eta gai honetan beste hainbat adarrei buruz.

Bukatzeko, Miren-ek teknologia arloan interes handia du eta azpiegiturarekin zerikusia duten edozein gai interesgarria iruditzen zaio. Horregatik arazoei aurrera egiteko eta bere teknologia eta eraikinei buruz duen ezagutza eskeiniko du. Gimnasioan arazoak gerta daitezke eta mantenimendua ere garrantzitsua da. Gainera, energiaren ezagutza ere eskeiniko du, izan ere, bere aita betidanik egon da oso interesatuta gai honi buruz eta Miren txikia zenetik ezarri dizkio honi buruzko baloreak.

